

INFORMAZIO OHARRA

## Zainketen antolaketa soziala, erantzukizun partekatua

*Bilboko Sinposioak agerian utzi du egungo eredia aldatu eta zaintza baloratu behar dela.*

**Bilbo, 2021eko irailak 30.** Bilboko Sinposioaren edizio berri bat egin da “Zainketen berrantolaketa soziala” gaiaren inguruan, gaur, osteguna, irailak 30. Eusko Ikaskuntzak antolatu du, hiriko Udalaren eta Emakunderen laguntzarekin. Zainketen errealitatea aztertzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta belaunaldien arteko itunean oinarritutako eredu berri bat zehazteko elkartu dira adituak eta profesionalak.

Egunari hasiera eman dio Eusko Ikaskuntzaren izenean Iñaki Zabaletak eta Emakundeko Izaskun Landaidak. Ondoren, inaugurazio-hitzaldia Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Cristina García Sainzek eskaini du. Zaintzaren balorazio sozial eskasaren azpian dauden faktoreak zein diren adierazi du. Egoera hori arintzeko, zaintza berdintasunez banatu behar da generoaren arabera eta gizarte-eragileen artean (Estatua, merkatua eta familiak), eta eskubide eta baldintza duinak izan behar ditu bere lanaren modalitate guztietan. García Sainz irakasleak uste du administrazio publikoen konpromisoa funtsezkoa dela.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lucía Martínez Virtok Euskal Herriko lurraldeetako zaintzari buruz hitz egin du. Bere ponentzia hiru zatitan egituratu da: lehenengoan gure eredia ulertzeko gakoak landu ditu; ondoren, Euskal Herriko lurraldeei buruzko datu garrantzitsu batzuk eman ditu; azkenik, zainketen kudeaketan eta horniduran aurrera egiteko ildo batzuk marraztu ditu.

Hirugarren hitzaldia Euskal Herriko Unibertsitateko Marina Sagastizabalek eman du, eta emakumeen “denbora-pobrezia” nabarmendu du. Horrek esan nahi du ez dutela denborarik zenbait eskubide gauzatzeko, hala nola politikoak. Evidentzia horretatik abiatuta, sexuaren arabera lanaren zainketa eta banaketa soziala antolatzeko egungo eredia deskribatu du.

Azkenik, Pilar Kaltzada kazetariak moderatutako mahai-inguruan, María Teodocia Juancay Morocho (Cuidado SINA), Agurtzane

Solabarrieta (Usurbilgo Udala) eta Asier Bagliettok (Arremanitz Kooperatiba) esperientzia eta iritziak azaldu dituzte.

María Teodocia Juancay Morocho emakume migratzaileen begirada eskaini du mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan, enplegu-baldintzata desberdinetatik eta planteatzen diren erronkei buruz hitz eginez.

Agurtzane Solabarrietak hiru galderaren inguruan Usurbilen abian jarri den parte-hartze prozesuaren berri eman du: zer zainketa?, nola zaindu nahi dugu? eta zer baliabide izango ditugu erakunde, partikular eta komunitatearenak?

Bestalde, Asier Bagliettok arreta jarri du gizonek iraganeko zaintzan, orainaldian eta etorkizunerako balizko ekimenetan duten inplikazioan.

Gainera, Sinposioan “Eusko Ikaskuntzaren berdintasunaren aldeko konpromisoa” adierazpena ezagutarazi da. Horren bidez, ehun urtetik gora dituen erakunde honek berdintasunaren aldeko apustua berresten du bere idearioan txertatutako oinarritzko lau printzipioetatik abiatuta: feminismoaren paradigma aplikatzea, genero-ikuspegia sartzea, interseksionalitatea kontuan hartzea eta emakumeen ahalduntzea sustatzea.

## NOTA INFORMATIVA

# La organización social de los cuidados, una responsabilidad compartida

*El Simposio de Bilbao ha puesto de manifiesto la necesidad de transformar el actual modelo y de poner en valor el cuidado.*

**Bilbao, 30 de septiembre de 2021.** Hoy, jueves, 30 de septiembre, se ha celebrado una nueva edición del Simposio de Bilbao en torno al tema “La reorganización social de los cuidados”, organizado por Eusko Ikaskuntza con apoyo del Ayuntamiento de la villa y Emakunde. La cita ha reunido a especialistas y profesionales para analizar la realidad de los cuidados y definir un nuevo modelo basado en la igualdad entre mujeres y hombres y en un pacto intergeneracional.

Iñaki Zabaleta en representación de Eusko Ikaskuntza, e Izaskun Landaida por parte de Emakunde, han inaugurado la jornada. Seguidamente, Cristina García Sainz, de la Universidad Autónoma de Madrid ha realizado la conferencia inaugural. Ha apuntado cuáles son factores que subyacen a la escasa valoración social del cuidado. Para paliar esta situación, el cuidado debe ser objeto de distribución equitativa por género y entre agentes sociales (Estado, mercado y familias), así como dotado de derechos y condiciones dignas en todas las modalidades de su desempeño. Entiende la profesora García Sainz que el compromiso de las Administraciones públicas es clave.

Lucía Martínez Virto, de la Universidad Pública de Navarra, ha hablado sobre el cuidado en los territorios de Euskal Herria. Su ponencia se ha estructurado en tres partes: en la primera ha abordado las claves para comprender nuestro modelo; a continuación, ha aportado algunos datos relevantes referidos a los distintos territorios de Euskal Herria; finalmente, ha dibujado algunas líneas para avanzar en la gestión y provisión de los cuidados.

La tercera ponencia ha corrido a cargo de Marina Sagastizabal, de la Universidad del País Vasco, quien ha puesto en acento en la “pobreza de tiempo” de las mujeres. Ello significa que no tienen tiempo para ejercer una serie de derechos, como por ejemplo los políticos. A partir de esta evidencia, ha descrito el actual modelo de organización social del cuidado y la división laboral por sexos.

Por último, en torno a una mesa redonda moderada por la periodista Pilar Kaltzada han compartido miradas y experiencias María Teodocia Juancay Morocho (Cuidados SINA), Agurtzane Solabarrieta (Ayuntamiento de Usurbil) y Asier Baglietto (Arremanitz Kooperatiba).

María Teodocia Juancay Morocho ha aportado la mirada de las mujeres migrantes en el cuidado de personas en situación de dependencia, desde diferentes condiciones de empleo y hablando de los retos que se plantean.

Agurtzane Solabarrieta ha dado a conocer el proceso participativo puesto en marcha en Usurbil en torno a tres preguntas: ¿qué cuidados?, ¿cómo queremos ser cuidados?, y ¿qué recursos dispondremos de instituciones, particulares y comunidad?

Por su parte, Asier Baglietto ha centrado su intervención en la implicación de los hombres en los cuidados en el pasado, el presente y las posibles iniciativas para el futuro.

Además, en el Simposio se ha dado a conocer la declaración “Compromiso por la igualdad de Eusko Ikaskuntza” con la que esta centenaria institución reafirma su decidida apuesta por la igualdad a partir de cuatro principios básicos incorporados a su ideario: aplicar el paradigma del feminismo, incorporar la perspectiva de género, tener en cuenta la interseccionalidad y promover el empoderamiento de las mujeres.